# Prólogo

Al leer los trabajos que salen a la luz en este número del *Anuario de Eusko-Folklore* me viene a la mente aquella fábula de La Fontaine (livre V, fable 9) en la que un padre a punto de morir llamó a sus hijos y les dijo que no vendieran la heredad familiar porque en ella había enterrado un tesoro.

Muerto el padre los hijos comenzaron con todo su afán a cavar el campo; pero no encontraron lo que esperaban. Siguieron cavando aquí y allá hasta que se percataron de que habían labrado toda la tierra de la heredad y que podían sembrar en ella. Entonces comprendieron que el tesoro que les había mencionado el padre era el trabajo.

No hay etnografía sin trabajo de campo. "Discurrir con los pies" llamaba Barandiaran a los obligados desplazamientos que exige esta labor etnográfica de recoger por boca de los informantes testimonios relativos a los diferentes aspectos de la vida. El medio imprescindible para esta comunicación entre el informante y el etnógrafo es la oralidad.

A medida que pasa el tiempo otorgamos mayor valor a aquellos consejos sencillos y sensatos que nos daba Don José Miguel cuando iniciábamos nuestras investigaciones para el proyecto ETNIKER. Uno de estos consejos, basados sin duda en su larga experiencia, era que "el campo de trabajo debía de ser cercano al investigador".

Los colaboradores en este número han escogido para su trabajo la localidad en la que viven y en la que se arraigan sus vínculos de amistad o de sangre. Esta opción de trabajar en un medio próximo y conocido garantiza la fidelidad en el registro de los hechos culturales; y de eso trata principalmente la etnografía.

El etnógrafo se responsabiliza de lo que registra pero no protagoniza los registros. Cede ese protagonismo al informante que conoce los hechos culturales por haberlos vivido. El coloquio en el que transmite esta información al etnógrafo constituye un acto irrepetible.

Ander Manterola

**Nota de la Dirección**

A partir del presente tomo el *Anuario de Eusko-Folklore* recupera el formato con el que se editaron sus primeros 28 números (1921-1979).

Esta decisión obedece a razones de tipo práctico expresadas por numerosos suscriptores que coleccionan la publicación.

# Hitzaurrea

*Anuario de Eusko-Folklore* aldizkariaren ale honetara dakartzagun lanak irakurtzean, La Fontaineren alegia bat datorkit burura (livre V, fable 9); alegia horretan, hilzorian zegoen aita batek bere semeei deitu eta etxeko soroak ez saltzeko esan zien, bertan altxor bat lurperatuta zegoela eta.

Aita hil eta berehala, semeak lurrak zulatzen hasi ziren eginahalean, baina ez zuten ezer aurkitu. Han eta hemen zuloak egiten jarraitu zuten, harik eta konturatu ziren arte lursail guztia aitzurtu zutela eta ereiteko moduan zegoela dena. Orduantxe ohartu ziren aitak aipatutako altxorra lana zela.

Ez dago etnografiarik lekuan lekuko lan barik. "Discurrir con los pies" (oinak erabili) deitzen zien Barandiaranek bizitzari buruzko testigantzak informatzaileen ahotik jasotzeko egin behar diren joan-etorriei. Izan ere, horretan datza etnografia lana. Informatzailearen eta etnografoaren arteko hartu-emana esan-entzunez bakarrik osatzen da.

Denborak aurrera egin ahala, gero eta garrantzi handiagoa ematen diegu ETNIKER proiekturako ikerketak egiten hasi ginenean Jose Migelek ematen zizkigun aholku xume eta zentzuz beteriko haiei. Bere esperientzia zabalean oinarrituta ematen zituen aholkuak, eta aholku haietariko bat zen ikertzailearen laneremuak hurbilekoa izan behar zuela.

Ale honetako kolaboratzaileek beren herria aukeratu dute lana egiteko; adiskideen eta euren senitartekoen bizilekua. Hurbileko eremu ezagun batean lan egiteak jasotako kultur ekintzen fidagarritasuna bermatzen du, eta hori da, batez ere, etnografiaren helburua.

Etnografoak jasotakoaren erantzukizuna dauka, baina ez da jasotako ekintzen protagonista. Protagonismo hori informatzaileari uzten dio; informatzailea da kultur ekintza horiek ezagutzen dituena, bizi egin ditu eta. Informazio hori jasotzeko, etnografoak informatzailearekin daukan solasaldia gertakari edo ekintza paregabekoa da.

Ander Manterola

**Zuzendaritzaren oharra**

Ale honetatik aurrera, *Anuario de Eusko-Folklore* argitalpenak berreskuratu egingo du lehenengo 28 zenbakietan (1921-1979) izan zuen formatua.

Erabaki hau erabilgarritasun arrazoiengatik hartu da, izan ere, argitalpen honen bilduma osatzen duten hainbat harpidedunek horrela egiteko adierazi digute.